



## Borroka aro berria Herrialde Katalanetan



JESÚS RODRÍGUEZ  
DIRECTA-KO KAZETARIA

**2**011. urtean M-15eko mugimendu indartsua lehertu zen, Kataluniako Gobernua ataka estuan jarri zuena. Besteak beste, orduko hartan Polizia Bartzelonako Katalunia plazako kanpaldi suminduari oldartu zitzaion, eta parlamentua setiatu zuten ekintzaileek, Artur Mas presidentearen aurrekontu-murrizketak onartu behar ziren egunean. Handik gutxira, suminduen artean zeuden ezkertiarren zati batek jauzi egin zuen erakundeetara, plazetan lortu ez zena bulegoetan egikaritu nahian. Ez zuten lortu zerua asaltatzerik –Pablo Iglesias *dixit*–, nahiz eta katakonbeteatik esnarazi zituzten lozorroan zeuden botere faktikoak, frankismo soziologikotik oligopolioetako eliteetaraino, euren pribilegioak mehatxatuta ikusi baitzituzten. Hortik aurrera estatuaren estoldek dena korapilatu zuten.

Hurrengo urtean jauzia egin zuen Kataluniako mugimendu independentistak, dena eraldatzeko borondatearekin eta desobedienciazko prest. Jende askok ez zuten sinetsi hasieran, aurreiritziengatik, uste baitzuten konbergenteek konbergenteena egiten dakitela soilik, eta balazta sakatuko zutela estatuari aurre egin baino lehen. Baina herri autoantolatua-ren faktorea erabakigarria izan zen bai ala bai erreferendumera iristeko eta hura gorputzekin defendatzeko, nahiz eta bide orririk gabe egin, eta “*A por ellos*” [Haiek txikitzer] leloa martxan jarri zuen fiskaltzaren eta botere judizialaren aurrean erreakzionatzeko gaitasunik gabe.

Iraganeko borroken  
errautsetatik eta  
erakundeen izen ona  
zikintzetik irteten ari  
dira iristear dagoen  
zera berri horren lehen  
txinpartak

*Statu quo*-aren aurkako bi errebolta horiek lehertu eta hamabost urtera, argi dago erakundeetatik errebolta horiek gidatu zituzten gehienak posizio pragmatikora itzuli direla, norberaren eta alderdien biziraupenera –jazarpena, espetxea eta erbestea pairatu ondoren–. Junts-en azaleratu dira negozioen sektoreko koadroak eta nabarmendu dira Sílvia Orriols-en muturreko eskuin etnizistarekin lehian ari diren tokiko liderrak. ERCn Oriol Junqueras-ek Generalitateko presidentetza hartu nahiko luke egunen batean, eta anbizio horrek atea irekitzen dio barneko aurkariak suntsitzeko bere esku dagoen edozein metodo erabiltzeari. PSC-PSOEn ezkerrean ere heldu da eztanda, Podemos zartatuta *kenketa* dakarren Sumarrekin.

Botere instituzionalaren kuotak banatzeko gerrak boto-emailearen zati bat abstentziora bidali du.

Bien bitartean, urriaren 1ean politizatu ziren gazte belaunaldiek dena eman zuten 2019ko Urquinaona Plazako Batailan eta pandemiak behartutako etenaldian pilak kargatu zituzten, erreferente berriak eta borrokatzeko kausa berriak bilatu eta aurkituta. Sare sozialetako kritika errazaz nekatuta, injustizien aurkako errebolta lema hartu nahi dute berriro. Agian ez dute planteatzen iraultza handi bat, baina hainbat elementu nuklear seinalatzen dituzte. Elementu horiekin azaltzen dute zergatik ez dituen zoriontsu egiten bizitza egokitu zaien munduak. Abiapuntuetako bat da alokairua ez izatea jasotzen dituzten soldata miserableen %60, eta joan den azaroaren 23ko manifestazio jendetsuak hala erakusten du. Uko egiten diote eurak esplotatzen dituzten enpresentzat ordu askoz lan egiteari, gerra eta hondamendi klimatiko gehiagora bidean doan munduaren ziurgabetasun erantsiarekin. Eta bonusa herrialdearen hegoalde iritsiko da. Valentziako gizarteak bere burua antolatu du eta oraindik shock egoeran dago, L'Horta Sur eta Ribera Altako uholde tragikoen kudeaketa politiko burugabea dela eta. Beste bultzada bat, boteretsuen aurrean ez uzartzeko. Iraganeko borroken errautsetatik eta erakundeen izen ona zikintzetik irteten ari dira iristear dagoen zera berri horren lehen txinpartak. ●